

## 2016 URTEKO GARIZUMA ALDIRAKO OTOITZA

Kaixo Jesus! Aurten katekesian eta Parrokian behin eta berriro errepikatzen ari dira urte hau Errukiaren urtea dela.

Eta geu ere ari gara, apurka-apurka, hitz horren esanahia ulertzen, eta zer dela eta errepikatzen duten hainbeste jakiten.

Frantzisko Aita Santuak, Jesusen ezaugarri horretan, hau da, errukian, arreta jartzeko eskatu digu. Izan ere, gure munduan ahaztu samar dago... Zer esan nahi du hitz horrek?

Gauza erraza bezain zaila da. Errukiz jokatzeko, gaizki pasatzen ari direnei ireki behar diegu geure bihotza. Eta hori erraza izan daiteke, Jesus, baina, aldi berean, oso zaila.

Erraza da, erraza den bezala sufritzen ari den jendea aurkitzea, nahikoa delako ingurura, eskolara, auzora, herrira... begiratzea edo minutu batzuek telebista ikustea.

Eta zaila da, gure bihotza horiei irekitzea ez delako beraiei begiratzea edo beraiez penatzea bakarrik; ezinbestekoa da zerbait egitea, nork bere esku dagoena egitea.

Garizuma aldian, Pazkoa ospatzeko prestatzen gara eta adiskidetzaren sakramentua ospatzeko aukera ere ematen zaigu. Lagundu iezaguzu zeure begiez begiratzen, lasai ez gelditzen, sufritzen dagoenari berehalako laguntza ematen, sufrimendua edo oinazea dakarren zerbait ikusten dugunean ihes ez egiten... garai honetan Bazkoa ospatzeko prestatzen gara eta baketze sakramentua ere ospatzen dugu. Lagundu begiratzen, Jesusek begiratzen zuen moduan, ez gaitzela lasai geldi, norbait sufritzen ari denean, gure ondoan dagoenari sufrimendua ematen dion zerbait ikusten dugunean, ez dezagula ihes egin. Jabe gaitzela gure ahalmenez eta Aita Onaren antzera jardun dezagula, itxaronez eta barkatuz.

Eskerrik asko, Jesus, zure errukiagatik. Eta eskerrik asko adiskidetzaren sakramentuagatik ere. Dakizunez, askotan, asmo onak ditugu, baina berehala ahazten zaizkigu. Horregatik, ondo datorkigu hausnartzea, zer egin dugun ondo eta zer ez aztertzea, damutzea eta, berriz ere, asmo onetara bueltatzea. Izan ere, azken batean, horixe da adiskidetzaren sakramentua ospatzea.

Eskerrik asko, Jesus!

